

Egun on, jaun-andre guztioi:

Egun on Andres Urrutia euskaltzainburu jauna, egun on sariturik izan zareten neska-mutilok, egun on Gorka Martinez jauna, eta, azkenik, egun on hona etorri zareten guztioi.

Neure lehen hitzetan egin dezadan Karlos Klementeren gogorapen xume eta bihoztia. Iazko martxoaren 6an, Azkue sariketen berri eman genuenean, gure artean izan genuen Carlos Clemente jauna, BBK-ko arduraduna eta hainbat urtetan Azkue Sariketa prestuki kudeatu duena, aurten zoritxarrez, minbiziak eramanik, ez dugu gure artean. Zeruaren erdi-erdian gerta dadila.

Eta orain gatozen Azkue sariketara. Kontu ezaguna da hitzak josten ditugunean nork geure erara egiten ditugula. Ipuin bat idazteko aginduko bagenie ehun neska-mutikori ehun ipuin desberdin aterako lirateke. Uda minean zero izarratuari begiratzen diogunean izar desberdinetan jartzen dugu arreta.

Batek, beharbada, bi begiak lehertu berri den supernoba batean finkatuko ditu, beste batek ilargiaren igitaiaren ertz zorrotzetan ohartu eta hasperen bat egingo du. Abuztuaren hamarrean, done Laurendi gauean malenkoniatsuen klub sekretu bateko kideek izarloken dantza eroari begira egongo dira gau osoan. Poetarik malenkoniatsuenak gaulehenean agertu ohi den artizarraren mirak eraginda goizaldearen zain egongo da berriro. Izarategia bat bera izanik kanpoko begiekin ez ezik, barruko begiekin ere ikusten dugu. Ilargia bat bera izan arren batentzat zerua zeharkatzen duen ontzia izango da beste batentzat igitai zorrotz bat.

Epaimahaiko kideok betiere kalitatea saritzen ahalegindu gara. Saria merezi duten lanak saritzen, alegia. Aurten B mailan narrazioan sari bakarra ematea erabaki dugu. Lehen sariaren izenburua CORRADO MACCARINELLI da. Hona ipuinaren hasiera:

*Corrado Maccarinelli italiarra zen. Piemonteko gaztea, Frantzia eta Italiako milako langileren antzera, Euskal Herrira etorri zen sorlekua utzita; atzerriko teknologia erabiliz, 1858az gero, Espainiako Iparraldean Norteko Ferrokarrila eraikitzen aritu ziren.*

B mailan, olerkian, sari bakarra ematea erabaki dugu, sari bakar hau lehen saria da. Saritutakoaren izenburua ITZALEN HITZAK. Hona lehen bi ahapaldiak:

*Ohe huts baten berotasun faltsuan  
esan zenidan egun hartan  
gera gintezen beti gaua balitz bezala,  
itzalen hitzetan.*

*Hitz samurren itsutasun hartan  
inoiz ez nuen aukera izan,  
bake edo guda hautatzeko,  
itzalen hitzetan.*

Hauek izan dira gure erabakiak. Mila esker entzuteagatik.

Bilbon, 2015eko martxoaren 18an  
Jabier Kaltzakorta